

ERANSKINA

«ANDRÉS DE IRUJO» SARIAREN 2010. URTEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehenengoa.– Helburua.

XX. mendean Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko euskal presentziari edota bizipenei buruzko sortze edo ikerketa lanak saritzeko, «Andrés de Irujo» sarira 2010. urtean biltzeko dei egitea da oinarri hauen helburua.

Bigarrena.– Saria.

2010. urteko «Andrés de Irujo» saria obra edo lana argitaratzea edo zabaltzea izango da.

Hirugarrena.– Hautagaitzak aurkeztea.

1.– Hautagaitzak Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian aurkeztuko dira (Nafarroa kalea, 2; 01007 Vitoria-Gasteiz, telefonoa: 945 01 81 27) 2010. urteko «Andrés de Irujo» sarirako direla argi adieraziz.

2.– Sarira aurkezten den hautagaitza bakoitzarekin batera lana egin duenaren berariazko baimena aurkeztu beharko da gutunazal itxi batean; horretarako, ebazpen honekin batera doan eskabide-orria bete beharko dute parte hartu nahi dutenek.

Laugarrena.– Aurkezteko epea.

Hautagaitzak aurkezteko epea 2010eko maiatzaren 15ean amaituko da.

Bosgarrena.– Epaimahaia.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak ebazpena emango du epaimahaia nortzuek osatzen duten jakinarazteko. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da saria emateko ebazpena baino hilabete lehenago. Saria emateko ebazpena ere Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak emango du.

..... jaunak/andreak,
.....(e)an jaiioak,
.....(e)an bizi denak,
honako hau

ADIERAZTEN DU

Atzerriko euskal presentziari buruzko sortze edo ikerketa lanak saritzeko 2010. urterako «Andrés de Irujo» sariaren araubidearen arabera, hitz ematen duela titulua duen eta goitzenarekin datorren obraren ustiaketa eskubideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari emango dizkiola komeni denean, ekainaren 6ko 98/2000 Dekretuaren 7. artikuluan ezarritako baldintzetan, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak emaleei ematen dizkien eskubideen kalterik gabe.

....., 2010ekoarena.

(Sinadura)

KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA LEHENDAKARITZA